

...eta kitto!

755 zkia. 2011-III-11

ASTEKARIA

TOKIKOM



Arraterentzat etorkizun bila

graduazio guztientzat
amazozak + kristalak

77€

Estadística fotográfica realizada en ATCC por el área. Análisis estadístico elaborado por el área de Estadística de Datos para el presente trimestre.

Bidebarrieta, 2
Tel: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIOPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

R.P.S. 5508



**3 URTE
ZURE**
ikusmena
eta
entzumena
ZAITZEN



J. Etxeberria, 13
Tfnoa. 943 700 230

RPS 04/02

Ekarri zure hortzeri zaharra

1.000€

eta 1.000 eurotarainoko deskontua egingo dizugu*

IRAZABAL
clínica dental



* Hortz-inplanteekin egindako tratamenduentzat. Promozioak 2011ko maiatzaren 1era arteko balioa du. **EZIN ZAIE** beste promozioeoi **GEHITU.**

Julian Etxeberria, 12 - 1. esk.
Tel. 943 208552

**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:Urkizu, 11 - solairuartera
20600 Eibar**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Adrian Alvarez

Maider Aranberri

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEÑUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi

eta S. Hernandez

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76**AZALEKO ARGAZKIA:**

Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

8.000 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHTA:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

HAOR.- Hara hor, hor ba. "Haor ba gure asmuak!".**HAR.-** Kezka, damu. "Haginka daukat barruko harra".**HARAGI.-** Haragia, bizirik dagoena. Hildakoa, jatekoa, okela da. "Haragi bizixan daukat orpua, ospelekin".**HARAIÑEGUN ANTIX ITXIK.-** Herenegun aurreko eguna. "Haraiñegun antixitxik hil jakue senide bat, eta gaur arte ez dabe jakiñ ezer".

ESKUTITZAK

EUSKARAZ EGINDAKO JAIOTZA-INSKRIPZIOA EIBARREN

2009an Erregistro liburuaren sistema informatizatua martxan jarri zen Eibarko Erregistro Zibilean eta, orduetik, inskripzioak euskaraz ere egin daitezke.

Inskripzio horiek euskaraz egin arren, aplikazio berri horrekin egindako inskripzioen ziurtagiriak euskaraz edo gaztelaniaz eskura daitezke.

Eibarren 2009 eta 2010 urteetan egindako jaiotza inskripzioen datuak honako hauek dira: 2009an 289 jaiotza inskripzio egin ziren gaztelaniaz (%88) eta 39 inskripzio euskaraz (%12). 2010ean, berriz, 261 inskripzio egin dira gaztelaniaz (%92) eta 22 euskaraz (%8).

Udalerrri honetako datu soziolinguistikoak begiratuta, 2001eko ikerketa kontuan hartuta (<http://www.soziolinguistika.org/edb/index.php?erakus=orriak&zo=32#>), Eibarko euskara gaitasuna % 51,8 izanik, inskripzio euskaldunen datuak baxuak direla esan dezakegu. Horregatik, Epaitegiko Euskara Taldeak herritarrek eta, batez ere, bikote euskaldunak umeak euskaraz inskribatzera animatu nahiko lituzke, eskura dugun hizkuntza eskubide garrantzitsu horretaz baliatu ahal izateko.

EIBARKO EPAITEGIKO EUSKARA TALDEA

BAZKIDE GUZTIENTZAT (ESKIATZAILA EDO EZ)

Urteko Bazkide Batzarra hurbil dagoela eta, bazkidearen bat edo batzuk sentsibilizatzeko asmoz, eta Batzarrean proposamen berriren bat egin dezaten, Komisio honek hau komentatu nahi du:

- Hamar urte daramatzagu jadanik karguan.
- Joan den urteko Batzar Orokorrean esan genuen moduan, gure asmoa agintaldia betetzea da eta, ondoren, inor ez bada komisioa aurrera eramateko aurkezten, berau hutsik geldituko litzateke; edo, beste modu batera esanda, desagertu egingo litzateke.
- Atsekabe handia izango litzateke: alde batetik, Eibarko haurrentzat antolatzen ditugun txangoak desagertuko liratekeelako; eta, bestetik, orain gutxi birsortu dugun Eski Taldearen jarraipena ere ez baitzen posible izango.
- Urteroko euren eski-segurua gurekin egiten dituzten

klubeko bazkideek ere zerbitzu hau galduko lukete, eta baita iraupen eskiko denboraldiko bonoak gurekin ataritzen dituztenek ere.

- Finalista Egunean, berriz, hutsunea nabarituko litzateke urtero antolatzen dugun Arratera Rolleski igotzera gabe.

Bere sasoiaren, aurreko eski komisioak kargua laga zuenean, Klubeko bazkide guztiok gure partetik zerbait ipini behar genuela ulertu genuen, eta horregatik hartu genuen aurrekoen lekukoa. Orain, komisioan jende berria sartzeko ordua heldu dela uste dugu, lan egiteko eta ideia berriak proposatzeko prest dagoen jendea.

Guzti hori kontutan hartuta, espero dugu Batzarrean joaten zareten artean norbait animatuko dela, Eibarko Klub Deportiboak bere Eski Komisioa gal ez dezan.

EIBARKO KLUB DEPORTIBOKO ESKI KOMISIOA*asteko***HEMEROTEKA***esaldiak*

"Jai egiteko modua berrikusi beharko genukeela uste dut; nahiko nuke jai ez lotzea beti zaratarekin, burrunbarekin, ... Festa lasai eta patxadaz egiteko aukera ere nahiko nuke, kalimotxorik eta speedik gabe, musika lasai bat entzunaz, patxangaz aparte"

(Sorkun, abeslaria)

"Internetetik kanta bat hartzea ez da ekintza iraultzailea. Dirua telekomunikazio enpresa handi bati ematen diozu eta egileren bati jatekoa ukatu. Egile hori Bruce Springsteen bada, ongi; baina egilea Victor Jararen familia bada, gaizki, oso gaizki ari zara"

(Marino Goñi, diskoetxe sortzaile eta produktorea)

**EIBARKO UDALA****GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA****EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO****KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)****Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria**

a u t u a n

JARDIÑETAKO ESKILLARAK PREST

Aurreko astian alkatiak Gipuzkuako gobernu-ordezkarixarekin batera bisitatu zittuan eskillarak bixar eguardixan ipiñiko dittue martxan, 12.30xetan. Udalbatzak parte hartuko daberen ekitaldixa amaitzian piskolabisa emongo dabe.

EZKER BATUAREN SALAKETIA

Eli Gomez Ezker Batua alderdiko ziñegotzixaren ustez Txaltxa Zelaiko parkia babesteko estalkixa ipintzeko biharrak horrenbeste atzeratzia ez da kasualidadia, "nahitta, billatzen jardun daberen zeozer baiño, beti be hauteskundieta euren aldeko etekiña lortzia helburu". Ezker Batuak egindako proposamenaren inguruko adostasuna aspaldi lortuta be, biharrak oindiok ez hasteko arrazoirik ez daguala salatu dau ziñegotzixak.

ANTXON IRAOLAGOITIARI OMENALDIXA

Eibarko Pedrucho Zezenzalien Elkartiak apirillaren 3an egingo dau urteko batzarra eta, azken urtiotako martxiari jarraituta, bazkidiak batuko dirala aprobetxauta, zezenekin zerikusixa dakan laguneren bateri omenaldixa egingo detse egunian bertan: Antxon Iraolagoitia izango da aurtengo omendua eta Arrate hotelian egingo dan bazkarirako txartelak 35 eurotan ipiñi dittue salgai Arkupe, Leo, Zubi Gain eta Egogain tabernetan.

Martxuak 8xarendako programia

MARTITZENIAN, EMAKUMIAREN NAZIÑOARTEKO EGUNIAN EGUARDIXAN UNTZAGAN egindako konzentraziñuan lan munduan andra-gizonendako bardintasuna eskatzeko pankartia zabaldu eben Udaleko Berdintasun Zerbitzuetik zeñi Emakumeen Mahaixan daguazeren alkartietatik egindako deixarekin bat egiñ ebenak. Urteroko moduan, bestalde, egun horren harira programaziño berezixa antolatu dabe hainbat arlo kontuan hartuta: bestiak beste, Antzerki Jardunaldietako egitaraurako an-



Martitzenian egindako elkarretaratziaren irudixa. / SILBIA HERNANDEZ

tzezlan bi aukeratzian andrazkuekin lotutako gaixak lantzen daberen izatia zaindu dabe (hillaren 14kuak eta 27kuan) eta martxuak 16xan, 19.00etan andrazkuen egoeria aztertzeke kafe-tertulixa antolatu dabe (Portalean, harrera gelan). Ja-

rraixan, 20.30xetan Berdinsareak saritu zittuan neskek dantzaren jaredungo dabe areto nagusixan. Eta liburutegixan hillebete osuan eukiko dabe martxan berdintasuna lantzen daberen liburu eta bestelakuekin osatutako interes-puntua.

...eta kitto!-ko Batzar Nagusia

DATORREN EGUNIAN, HILLAREN 17-XAN EGINGO DAU URTEKO BATZAR NAGUSIXA

...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEAK, bere egoitzan (Urkizu, 11 solairuarteran). Lehelengo deialdixa 19.00etarako egin dabe eta ordurako bazkidiaren erdixa baiño gitxiago agertu ezker,

estatutuetan jasotakuari jarraituta ordu erdi geruago, bigarren deialdixan egingo da batzarra, 19.30xetan. Gai ordena honakua da: 2010eko gestiño balanzia, 2011rako egitasmuak eta arrekontuak, galdera-erantzunak eta iradokizunak, zuzendaritza barrixa aukeratzia, funtzionamendua eta piskolabisa.



Urkizuko egoitzan egingo dau elkartiak batzarra. / S.H.

Bazkide Jairako sarrerak


Bestalde, datorren apirillaren 9xan ...eta kitto! Euskara Elkartiak ospatuko daberen Bazkide Jairako sarrerak saltziari ekin detse alkartian. Nagusixendako txartelak 10 euro balixo dau eta umienak, barriz, 5. Egun osoko egitaraua izango daberen jaixan gauza mordua egongo da eguardiko 12.00xetan hasi eta illuntzeko 20.00ak arte: taldeko argazkixa, umientzako puzgarrixak, taillerak eta pailazuak, bingua eta dantzaldixa. Bazkaltzeko paella erraldoia egingo da. ...eta kitto!ko bazkidiak lagunak ekartzeko aukeria be badake (bazkidia gehi lau lagun). Jaixa Armeria Eskolan izango da eta sarrerak erosteko azkeneko eguna martxuak 28xa izango da.

ELOISA ECHABURU MAGUREGUI

(2011KO MARTXOAREN 6AN HIL ZEN)

"BIHOTZ ASKOTAN DUZU LEKUA, BIZI ZAREN EZAUGARRI"

Mikel, Jon, Ane, Irune eta Asier



- Fliskolabisa
- Talde Argazkia
- Umeentzako
Tailerak
- Bazkaria
- BUZGARRIAK
- Zirko-Tailerak
- Bingo
Herrikoia
- DJ-a



GMM
 Bazkaria:
 PAELLA
 ERRAL DOIA!!
 Edariak
 Postrea
 eta Kafea

Bazkide
 Jaixa!!!
Apirilak 9
Armeria Eskolan

Sarrerak:
 nagusiak 10 €
 umeak 5 €
 ...eta kittoln salgai



Ordutegia: 12etatik 20etara

asteko

201

datua

etxebizitza saldu ziren
iaz Eibarren, aurreko
urtean baino
14 gehiago.

2008an 165 saldu
ziren bakarrik, aurreko
urtean askoz gehiago
saldu zirenean,
322 hain zuzen.

Kostoiari dagokionez,
batzbesteko prezioa
%8'8 jaitsi da
azken urtean.

Larrialdixetakuak greban

ANBULATORIXOKO ATIAN ZINTZILIK DAGUAZEN PANKARTAK SALATZEN DABEN MODUAN, larrialdixetako zerbitzuetako bihargiñak greban dagoz,

"kalidazeko osasun zerbitzu publikuaren eta lan baldintza duiñen alde". Bizkaiko eta Gipuzkoako larrialdi zerbitzueri eragitten detsen grebaren harira bihargiñek zabalitzen diharduen idatzixaren arabera, *"Udalak, sindikatuak, bihargiñak eta Legebiltzarrak berak onartzen ez daben arren, Osakidetza zuzendaritzak aurrera dirau arretaren kalidadiaren kalterako dan bere murrizketa politikarekin: pediatria bertan behera laga eta ambulategiak zapatueta ixten dittu, larrialdixetarako zentruak ixten jarraitzen dau, ordutegiak murrizten segitzen dau... Aldaketa guztiak zerbitzuaren erabiltzaillieri larriki eragitten detse, azken 20 urte honetan eskindu eta bermatzen jardun dogun zerbitzuak okerrera egin dau eta"*. Bihargiñek salatzen dabenez, urtebete daroie gatazkan eta, Osakidetzaren aldetik gauzak konpontzeko ahalegiñik ikusten ez dabenez, Bizkaian martxan eguan grebari eutsiko detsela berretsi eta Gipuzkuan be greba hastia erabagi dabe: ondorioz, martxuan eta apirillian aldizkako greba-jardunaldixak egingo dittuela iragarri nahi detse herritarreri.



Gernikako Akordixuaren aurkezpena

DOMEKAN, HILLAREN 13AN PRESENTAUKO DABE EIBARKO GERNIKAKO AKORDIXUA PORTALEAN, bigarren pisuan dagan areto nagusian. Azken hillebetiotan hitzarmenaren oiñarrixak ezagutzera emoteko zeñi idatzixarekin bat egin nahi izan dabenen atxikimenduak batzeko herriko eragille nagusixekin kontaktuan egon dira bakia helburu dakan testua bultzatzen diharduen lantaldekuak eta, aurretik iragarritakuari jarraituta, ointxe testua herritar guztieri ezagutarazi eta azaltzeko epia zabalitzeko sasoiñ sartu dira. Horregaittik, domekan 12.00xetan



hasiko dan presentaziñua interesa dakan jende guztiarendako zabalik egongo dala azpimarratu dabe arduradunak. Idatzixak diñuana azaltziatz gain, Eibarko Gernikako Akordioaren Taldearen aurkezpena

egitteko erabiliko dabe ekitaldixa eta, antolatzaillien biharra erraztiarren, atxikimenduarekin bat egin dabeneri piskat aurretik, 11.30xak aldera agertzeko eskatu nahi detse, holan presentaziñua bera arintzeko.



Parkia loratu zan

ZAPATUAN JENDE MORDUAK JO EBAN URKIZUKO PARKERA, HANTXE LEHELENGOZ ANTOLATUTAKO Lore eta Landareen I. Azokiak erakarritta. Eguraldixa lagun euki eben Gipuzkuako hainbat herritatik euren landare koloretzu eta ederrekin etorrittako erakusle-saltzailliak zeñi erosliak. Eibarko Udalak, Debemen Debabarrenako Nekazal Elkarteak eta Eibar Merkataritza Gune Irekiak alkarlanian antolatutako azokan umiendako tallarra be egon zan martxan.

EAJko alkategaixen presentaziñua

DEBABARRENEKO UDALERRIXETARAKO EAJ ALDERDIXAK AUKERATU DITTUAN ALKATEGAIXAK JENDE AUERRIAN presentatzeko ekitaldixa egiñ eben aurreko asteburuan, zapatuan Portalean. Ekitaldixan danak alkarrekin eguzela apro-

betxauta, talde-erretratu etara eben Eibarko udaletxe parian Markel Olanorekin batera. Kultur etxiak hartu eban ekitaldixan, bestalde, Eva Juez Eibarko alkategaixak ez eze, Markel Olano, Joseba Egibar eta Arantza Tapia diputauak be egiñ eben berba.




Eibarko egoitzaren aurrian egiñ eben elkarretaratzia. / SILBIA HERNANDEZ

Funerarixakuak protestan

AURREKO BARIKUAN ELKARRETARATZIA EGIÑ EBEN NUESTRA SEÑORA DE BEGOÑA FUNERARIXAKUAK, LAB sindikatuak deittuta. Azken egunotan kalian kartelak pegatzen jardun dabe funerarixako bihargiñak, bestiak beste "oin momentuan hiru kaleratu daguazela, gerentiairen kontrako eraso salaketia be badaguala eta erabat beldurtuta biharrian dihardue-

la" ezagutzera emon eta salatzeko. ALBIA taldeko kidia dan funerarixako burueri eskatzen detsatzen punto nagusixak, barriz, jarraixan jasota daguazanak: "Kaleratutako bihargiñak atzera be onartzia, kalera-tze traumatiko gehixago ez dala egongo berbia emotia eta LABeko delegauarekiko, bihargin guztiendako eta sindikatuak egindako biharreakiko errespetua".



750 euroko isuna onartu dau Udalak.

Grafitteruendako zigorra

UDALAK IDATZIZ ADITZERA EMONDAKUARI JARRAITTUTA, "AZKEN ALDI HONETAN ERAIKIÑETAN, hormetan eta paretetan grafitteruak eta lotsagabiak pintada asko egi-tten diharduenez eta horrek Udalarentzat kostu haundixa dakanez, herrittarreri gogorara-

zi nahi jakue holako ekimenen gaiñeko salaketarik egiñ ezke-ro, egilliak isuna pagau biharko dabela". Pagau biharreko isuna 750 eurokoa da eta, horrez gaiñ, egindako pintadak garbittu biharko dittu egilliak. Bestalde, adin txikikuen kasuan, isuna gurasuak pagau biharko dabe.

anzorik anzo



Hainbat kale asfaltatzen dihardue

Egunotan herriko hainbat kale asfaltatzeko biharrek hasi ditue eta, horren eragiñez, tokixan tokiko trafiko aldaketak gertatu dira toki batzutan, erretratuan ikusi zeinkien Arraguetaren kasuan moduan: martitzen goizian bertan jaso eben errepide osua goittek behera eta ordu gitxiren buruan ibilgailuak asfalto barrixaren gaiñetik, erregular, pasatzen hasi ziran. Aparkatzia debekatzen daben seiñalizaziñua zein norabide aldaketak, kale-mozketak eta bestelakuak ezagutzera emotekuak biharrek hasi aurretik ipintzen dihardue udaltzaiñak.

eibar kaleka

San Andres pasealekua

Herrixan dittugun patroix bixetako bateri eskindutako kalia beste patroia dan San Juani eskindutakua amaitzen dan tokixan hasi eta Barrenengua aldian amaitzen da. Azken urtiotan zatirik haundixena asko kanbixau da, ixa kale osua hartzen eban Alfa fabrikia eraitsi eta urbanizaziño barrixa jasotzian.

Pegora kopurua: 7

Erroldatutakoak: 150



Paulino Larrañaga Longarte, Paulino, 92 urterekin juaun jakun aurreko astian, martxuaren 2xan. Oin dala gitxira arte egunero kalian ikusten jardun dogun guztiak peniakin hartu genduan barrixa, ezagutu ebenak ondo dakixen moduan, bestela izatia eziñezkua da eta. ...eta kitto! aldizkarixak egindako azken entrebistia 2008ko apirillian izan zan, handik egun gitxira presentatzekua zan "Paulino Larrañaga: Arte Ederretako Bihargiña" liburu-kataloguaren aitzakixarekin.

Agur baiño gehixago, GERO ARTE PAULINO

Urtebete lehenago Paulinok ikasle euki eban Asun Gamarrak zuzenduta Portalean martxan egon zan erakusketia osatu eben 150 bat piezen katalogua, baiña, artistiaren obria ixa osotasunian batzia lortu eban album bihurtu zan azkenian: artelanen sortzailiak bizitza osuan gehixen maitte izan zittuan gaixen arabera sailkatuta (arrantzaliak, bihargiñak, pilotia, erlijijiña eta musikia). Paulinoren eskuak landutako teknika guztiak be ederto islatuta geratu ziran liburuaren orrixetan: marrazkixak, grabauak, olioak eta egurrian nahiz brontzian egindako eskulturak. Artez betetako bizitza osua laburbiltzen daben 96 orrialde eta 175 argazki.

Artistia jaxotzatik

Eibarren jaixo zan Paulino 1918ko apirillaren 13 batian. Gazte-gaztetatik grabau indus-

tralian hasi zan biharrian, "kuberterixia, medallak, zinturoiendako hebillak eta horrelakuak grabatzen", baiña 13 urte zittuanian beste eibartar batekin, Jesus Berezibar 'Txopa'-rekin, egurra lantzen hasi zan, muebliak-eta apaintzeko, baiña orduantxe be modak agintzen ebala eta urtebete biharrian pasau barik krisixa aillegau zan, landu bariko egurrearekin egindako muebliak eskatzen zittualako jendiak. Baiña Paulino ez zan gauza bakarrera dedikau eta 14 urterekin Cayetano Kareagaren grabadore-tallarrian sartu zan, ofiziuua ikastera. Gabaz, barriz, Jazinto Olaberekin Udalaren dibujo eskolara juaten zan. Berezko abilidadieri horrelako maisuak gehittuta, ez da arrarua 18 urte bete orduko bere taillarra zabaltzeko moduan izatia: grabatzen hasi zan, baiña ez zan ezertan hasteko sa-soi egokixa, Gerra Zibilla hasi




Paulino Portalean egindako azken erakustaldixaren presentaziñuan. / SILBIA HERNANDEZ

zan-eta. Gerra ostian 5 urte emon zittuan Gernikako joierixabatian biharrian, metalak grabatzen eta handik Durangora juaun zan, ixa urtebeterako, Amilibiako zinturoi-hebillen fabrikara biharrera.

Baiña 1944an atzera be Eibarrera bueltau zan eta harrez gero hamen egon da, bere kontura biharrian. Hasieran ikasitako ofiziuari jarraituta egiñ eban biharra, baiña segiduan bere zaletasun artistikuak beste bide batzuk zabaldu zetsatzen eta pinturia eta bere bizitza luze eta oparuan batez be egurrezko-tallak landu izan dittu. Eta akaso arlo bi hórretan sortu dittu artelanik ezagunenak Paulinok: Astelena frontoia apaintzen daben Errumaniako pago-egurrian landutako irudixa beria da, baiña bere obra gehixena munduan zihar sakabanatuta dago, erosten juaun diranen txoko kuttunak apaintzen. Portale-

an ikusgai egon zan esposiziñorako, lokalizatzeko orduan ondo kostata, 200 bat obra batzia lortu eben.

Rebistarako artikulua idatzi ahal izateko egindako zitaren ondoren, Paulinok kontautakuari sarrerria emoteko testua atzera be geure artera ekarrirta, artistiaren konzepziñorik zabaleneri kaso egitten badetsagu, horixe izan da Paulino Larrañaga onduen definitzen daben berbia, duda barik. Artistia. Pinturia, egurra, grabaua, musikia, antzerkixa eta beste arte mota guztiak maittatu arren, horren danen gaiñetik zeozer benetan maittatu izan badau Paulinok, hori bizitzia izan da. Eta aurreko astian, aurtengo Aratostieta-ko Eguen Zurixaren bezperan amatau zan arte; azken momentura arte bizi-bizirik egon zan maittasuna izan zan hori. Egon leikiazen maittasun mota guztien artetik haundixena.



PAULINO LARRAÑAGA LONGARTE (2011-III-2)

"Guretzako pertsona zoragarria izan zarelako, jendeak asko estimatu zaituelako eta laguna eta maitagarria izan zaitugulako"

BIHOTZ-BIHOTZEZ

TXIRIBIRI TALDEKOEK

AITOR, ENRIKE, JOSE LUIS, ESTHER, PEDRO, AXUN, TXIKITO, DAVID, MANUEL, IRENE, JESUS ETA PILI.




Aurtengo Aratostiak bikain jua dira, neurri haundi batian eguraldixa be hala portau dalako. Baiña beti ez da holan izaten: negu sasoi honetan izanda, eguraldixa kaskarra bada, leikiena da askori atzera eragittia koko-jantzeko orduan. Arratiak be lehen neguan ospatzen ziran, fetxia aldatu arte. Aratostietarako halakorik nahi?

Aratostiak beste sasoi batian ipiñiko zendukez?



CESAREO AZPILIKUETA
73 urte
jubilaua

Aratostiak oin dira; betidanik izan dira neguan eta ez neukez aldutuko. Gehixago oindiokan: neguan koko-jantzia udan egittia baiño errazagua dala uste dot. Udan bero larregi egitten badau, nork aguantatzen dau pelukiarekin? Oiñ, hotza eginda be, hotz hori segittuan kentzen da!




MIKEL ARREGI
29 urte
bihargaña

Udan izango balira, askoz hobeto! Oiñ hotza egitten dau gehixetan, eta girua ez da bardña. Uda aldian izan ezkeru, jende gehixagok urtengo leuke kalera eta jai-giro indartsuagua egongo zalakuan nago.

MARIAN ALVAREZ
46 urte
erizaiña

Fetxaz aldauko neukez, udabari edo uda aldera pasatuz esaterako. Jende gehixago koko-jantziko zalakuan nago. Umiak be disfrutatzeuko aukera gehixago izango leukie. Nire esku balego, udaberri amaierian edo uda hasierian ipiñiko neukez.



SUSANA ZUBIAURRE & IRENE ASTABURUAGA
14 urte / ikasliak

Duda barik, udan askoz hobeto. Neguan izanda, hamen beti dakagu gauza bera: hotza, eurixa, iñoiz edurra be bai... San Juanen bueltan egittia ondo legoke. Ordurako eguraldi ona eta berua egitten dau eta jende gehixago ibilliko zan kalia.



Helbidea

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreetako
1. solairua

EIBAR

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

☎ 943 12 02 00 FAX: 943 12 02 04

1 Kardiologia	8 Pediatria
2 Zirugia	9 Psikiatria
3 Dermatologia	10 Radiologia
4 Dietetika eta Nutrizioa	11 Traumatologia
5 Analsi Klinikoak	12 Koloproktologia
6 Ortodontzia	13 Erizaintza
7 Otorrinolaringologia	14 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa

BERRIA: Foto-depilazio Unitatea

ESTUDIOS
ARRILLAGA

PROIEKTUAK
ERREFORMAK



LOKALAK
ETXEBITZAK



Arragueta, 12 EIBAR
Tel. 943 20 06 98

ELGOIBAR Errosario, 15
Tel. 943 74 40 19

ARRATE taldia aurrera etara nahixan



Otsailko lehelengo hamabostaldixan billeria egiñ eben Arrate taldekuak Portalean, egoeria zein zan ikusi ostian, harrobiko jokalarari gaztien zein nesken taldeko 100 bat guraso batzia lortu eban batzarian horren gaiñian berba egiñ eta urtenbide posibliak pentsau eta aztertzeko. Eratu barri dan gestora batzordekuak Arrateren famelixa zabala osatzen dabeneri euren asmuen barri emoteko aprobetxau eben billeria. Bestiak beste, eta zalan-tza guztiak argittu eta baztertzeko asmoz, billeran batutako gurasueri lehenik eta behiñ *“harrobixak aurrera egiñ ahal izateko bihar dittuan osagai guztiak dituala”* azaldu zetsen.

Horrekin batera, eta oztopok oztopo, Asobal-en jokatzen diharduan taldia salbatzen ahal egintzeko apustua berretsi nahi izan eben, Eibar moduko herri batendako Asobalen diharduan eskubaloit talde bat

eta, gaiñera, Lehelengo Dibisiñuan jokatzen dabene beste talde bat (Arrateren bigarren taldia) eukitzia zelako *“lujua”* dan atzera be gogora ekarri eta azpimarratuta. Gestorako kidien berbetan, *“oso herri gitxitan egongo dira alde horrerri begira geure herrixan gagozen moduan, kirol modalidade honetan aurrera egin nahi dabene gaziendako bidia holan zabaltzen detsen holako aukerak eskintzeko moduan”*.

Eta, zelan ez, billera honetan be oin momentuan taldiak dakan premiñia edo arazorik larrixenak be bere tartia euki eban: gestiñuaren arduria euren gaiñ hartu dabeneak *“datuak faltan egotiak”* euren jarduna zelan baldintzatzen dabene esplikau zetsen gurasueri eta, egoeriarri moduren batian edo bestian bueltia emon ahal izateko, Eibar eta herrittar guztiak Arrateri laguntzeko premiñiaren garrantzi- xa azpimarratu eben baita be.

Badira aste batzuk Arrate eskubaloit taldiak diru-arazo larrixak zittuala kalia zabaltzen hasi zala. Taldiarri babes ekonomikua emoten zetsan Isolux Corsán-ek dirurrik ez emotiarekin batera hasi ziran Arrateren burukomiñak eta, horiek arintzeko biharrian diharduen arren, etorkizunari itxaropentsu baiña laiño baltzak erabat desagertarazteko ahalmen barik begiratzen detse taldiaren arduria, bazkidien junta egiñ eta zuzendaritza barrixa osatzeko aukeria euki bittartian, euren gaiñ hartu dabene Natacha Bergara, Jose Ramon Iriarte, Gojko Vućinic eta Ivan Escribanok.

Arrateri laguntzeko eratu nahi eben lantaldiarekin bat egitteko prest boluntariorik eguan galdetuta, hainbat gurasok eskariari erantzun zetsen eta, horri esker, lantaldian 22-25 bat lagun batzia lortu dabe, hain zuzen be aldizkariko azalian zeññ artikuluarri laguntzen argittara emon dittugun talde-erretatuak erakusten dittuanak.

Gestiñorako batzordia eratu eta apenas 3 aste pasauta, hainbat pauso emotia lortu eben, beti be bidian topatzen jua ziran hamaika trabak ahaztu barik. Bestiak beste, taldiak dakan benetako zorra zenbatekua dan argitzeko ahalegiñari jarraituta gogotik biharra eginda be, *“kontu hori oindiok be ez dakagu erabat argi, ixa egunero sorpresa barriren bat topatzen dogu. Dana dala, gure aurretik jardun dabene Iñaki Bolinagarekin zorretan gagoz gu eta baita Eibar be”*.

Egoera larrixenian be jokuan

Zorraren mamua gaiñetik kendu ezinda egonda be, partiduak eta ligak aurrera segitzen dabe. Baiña, pentsau leikian moduan, jokalarixendako egoeria benetan gogorra izaten dihardu, *“pentsau, etxetik 2.000 kilometrorra dagoz batzuk, kondiziño batzuk jasotzen dittuan kontratuarekin etorri ziran, baiña ez dabe kobratzen... Edozelan be, eurekin batu garian egoeriarren larritasunarekin kontziente dira eta ahal dabene neurrixan lagundu eta alkarlanian jarduteko prest agertu dira hasieratik”*.

Horiek guztiak konpontzeko zein pauso emongo dabene pentsaziarekin batera, dirua nundik eta zelan lortu da beste buruhaustia: enpresa eta bestietara diru-eskian juatiaz gain, beste proiektu batzuk be badittue esku artian, tartian bazkidiak lortzeko kanpaiñia.



Talde nagusiko jokalarixak asteleheneko entrenamendua amaittu eta gero. / SILBIA HERNANDEZ

IVAN ESCRIBANO

jokalari-ohia eta batzordeko kidea:

“Batzarra deittu ahal izateko bazkidiak bihar dittugu”

- Bazkidiak lortzeko kanpaiña dakazue martxan oin momentuan, ezta?


Kanpaiña sinbolikua da, jendiari 10 euro eskatzen gabiz eta, baiña egin biharrekua. Izan be, indarrian sartutako arau barrixa bete ahal izateko gitxieneko bazkide kopuru bat batzia derrigor modura ezarri dabe-eta, horregaittik, legiari egokittutako estatuto barrixak egiñ ahal izateko aparteko batzarra deittu nahi badogu, zenbat eta bazkide gehiago izan orduan eta hobeto.

- Baiña, moduren batian azaltzarren, bazkide berezixak izango dira hórretxek.

Bai, batzuk galdetzen dabe 10 eurua emotiarren zorrarekin lotutako arazuak euki leikiazen... Argi laga nahi dogu ezetz, kanpaiñaren helburu bakarria batzarra deittu ahal izateko biharrezkua dan bazkide-kopurura ailegatzia da. Bestalde, bazkide horrek ez dira abonatuak eta, beraz, partidua ikusi nahi badittue sarrerria pagau biharko dabe. Eta abonatuak bazkide egitteko, barriz, gure buleguetara jo biharko dabe.

- Eta aparteko batzarra egiñ ostian, zeñ izango da hurrengo pausua?

Estatutuak lege barruan egokitzia lortu eta gero, batzar orokorra deittu eta bertan kontuak argittuko dira, hauteskundietarako bidia zabaldua. Hauteskundietako botuekin bazkidiak erabakiko leukie zuzendaritza barrixa osatzeko kidiak zeintzuk izango diran eta, holan, zuzendaritza barrixa izendatzeko moduan egongo gara.



40 euroko abonua

Horrez gain, denboraldixa amaittu aurretik etxian, Ipuruia kiroldegixan, jokatu diran lau partiduetara jua nahi dabenendako abonua berezixa sortu dabe, 40 eurotan salgai ipintzeko. Eskintza berezixa aprobetxau

eta aurretik, jokatzeko geratzen diran lau partidua ikustera sartzeko balixoko daben abonua erosi nahi dabenak klubaren bulegora jo biharko dabe (Julian Etxeberria, 3ra). Astelehena eta barixakua bittartian egunero zabalzen dittue buleguak, 10.00-

etatik 14.00etara eta 16.00etatik 20.00etara (argibide gehiago rako telefono zenbaki bi dagoz: 943255001 eta 943255002).

Eibar-Real partidua

Eta esperantza haundixak ipiñi dittue gaur eguardixan ber-

tan Ipuruia foball zelaixan presentau daben partiduan: “Eibar eta Realaren arteko norgehiagoka benetan berezixa izango da. Martxuaren 23an jokatu dabe talde bixak, 20.00etan eta telebisiñotik emongo dabe. Sarrerren salmentan batutako diru guztia, tabernan jasotakua... dana Arrateri laguntzeko izango da, horregaittik eskerrak emon nahi detsaguz talde bixeri, laguntasuna eskintzeko prest egon diralako hasiera-hasieratik eta herritareri, barriz, dei berezixa egin nahi detsagu, antolatutako ekimenekin bat eginda taldiari laguntzeko, dana biharko da eta”.

Juventud Deportiva Arratek idatziz helarazi deskun gutunak jasotzen dabenari jarraituta, “Arratek eskerrak emon nahi detsetz lehelengo eta behin zale-tueri, azken partiduan azaldu daben jarreragaittik, baita laguntasuna musutruk, bueltan ezer eskatu barik emoten deskuen guztieri, komunikabidieri... Ixa dana egitteke dago oindiok be, maillari eusteko aukeria be kili-kolo dago, baiña apaltasunez eta danok indarrak batuta lortu geinke”.

EGOITZA NAGUSIA
Bilberrizta 20 - beheko, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Errozketa laber
Egokibonari (Signo poligonari):
Partidular, mitua eta aseguri-erakari zerbitzuak
Koroak - Eskelak - Urteumensko eskelak
Euskal Herri osoko ospitaleen bertan zerbitzuak
Nazio eta Nazioarteko traslakadak

Mugica Ehorzketa
Funerariak laber

TELEFONUA (24 ORDU)
943 201 951

ARTOLA

jatetxea

ASTEBURUKO DEGUSTAZIO MENUA

Paletilla iberikoa
Piña, aguakate, gaztai freskoa eta intxaur entsalada
Otarrairak arroza eta baby espinakekin

Legatza frijitua txapiroiekin

Buztan erregosia
edo **Solomilloa plantxan**

Degustazio postrea
edo **Txokolate mousse-a**
edo **Limoi sorbetea cavarekin**


Urteko ardoa, sagardoa edo beste

Astelehenetik
barixakura
EGUNEKO
MENUA
15 €

Tokia gordetzeko:
943206348

25 € + BEZ

TEEN-
AUEA



Kirolaria dugu Maialen Delgado. "El conquistador del fin del mundo" ETB2ko saioan jardun du, osasun-arazoekin saioa laga arte. Spinning eskolak ematen ditu Bergarako Agorrosin kirolgunean eta, hortik aparte, soroslea ere bada. Foballean eta surtean jardundakoa, prest izango litzateke berriro ere horrelako telebista realityetan parte hartzeko.

MAIALEN DELGADO, "El conquistador" lehiakidea:

"Ez naiz nabarmendu eta hori da nahi nuena"

- Zelan animatu zinen horrelako lehiaketa baten parte hartzera?

Lagun batekin joan nintzen, probatzera. Kasting-etik pozik irten nintzen, ikusita nirekin denbora gehiago egon zirela. Banuen susmoa hartuko nindutela.

- Esperientzia polita izan da, aberasgarria?

Bikaina. Talde guztien artean kiroltasun handia izan da, telebistakoek askorik laguntzen ez baziguten ere horretan.

- Pozik zaude emandako irudiarekin? Edo telebistak han gertatutakoa itxuraldatzen du?

Ni neu konforme nago: eman nahi nuen irudia agertu da. Ez nuen nigan eragingo lukeen irudirik eman nahi, bestelako oihartzunik sortu. Eta ez naiz nabarmendu; hori zen nahi nuena.

- Parte hartu duzuenok batzen zarete elkarrekin?

Oso ondo moldatzen gara eta bai, izan gara hiru-lau aldiz: bai beste taldekoekin eta baita guk, neskok, bakarrik ere.

- Ez da arriskutsuegia hara joatea sua egiten jakin barik?

Bagenekien baina! Baina han izandako eguraldiak apenas la-

gutnzen zuen: lupekin-eta saiatu ginen, baina kea irtetzeaz parte ezin piztu. Gainera, errodatzen zutenek argi laga ziguten: euren aurrean egin behar genuela. Joaten zirenean, zertarako saiatu?

- Zelan prestatu zinen zu Patagoniara joateko?

Igeri pixka bat egin nuen. Bere-ziki, Sellako jaitsieran hartu nuen parte, piraguarekin: ondo amaitu nuen eta pozik geratu nintzen.

- Programa laga zenuen sabelak ez zizulako ezer onartzen. Halako aurrekaririk bazenuen?

Hara joan aurretik ez, baina gero izan dut noizbaiten. Egia esan, bueltan egin zizkidaten analisiak bere onetik ateratako emaitzak eman zidaten.

- Ematen duen bezain gogorra da lehiaketan aurrera egitea?

Probak zailak dira; baina, fisikoki baino, psikologikoki da gogorra, denbora asko zaudelako ezer egin gabe. Hotza ere ezin duzu gainetik kendu.

- Tranparik egiten da?

Bai, bai. Ez izan zalantzarik.

- Gomendio bat lehiaketan parte hartu nahi duenarentzat...

Kopeta izateko. Kasting-eantza izaera duzula erakutsi behar da.

etxolajatetxea@hotmail.com

Erreserbak: 943-207019

Txirio kale, 1

etxola
JATETXEA

Eguneko menua / Karta / Pintxoak
Enpresa eta taldeentzako aurrekontuak

Radio Eibar
CADENA
SER
104,0 FM

Iradi
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Gaur aurkeztuko dute Uni Encounter, Portalean

Uni Encounter jardunaldien zazpigarren edizioa abiatuko da gaur arratsaldean, Portalean 19.00etatik aurrera egingo duten aurkezpenarekin. Jarraian, UniSkills Sariak banatuko dizkiete irabazleei eta, informatikaren inguruko jarduerekin osatutako egitarauari sarrera gisara Daniel Armendariz SALE (Software Libre Askea Euskadin) delakoaren koordinatzaileak hitzaldia emango du, honako izenburuari jarraituta: "10 años de software libre en Euskadi ¿Qué podemos esperar?".

Uni Eibar-Ermuako informatika sailak antolatutako jardunaldiek datozen egunotan izango dute jarraipena, Ermuan, Ongarai auzoan dagoen ikastetxean, hilaren 18an amaitu bitartean. Martitzenean, hilaren 15ean, informatika



arloan datorkiguna azalduko dute Jorge Uriarte (Gailen) eta Svet Ivanchev (eFaber) adituek, 17.00etan hasita emango dituzten hitzaldietan. Hurrengo egunean 12.00etan hasiko dira enpresa munduari eskainitako hitzaldiak. Irontec-eko Iker Sagastik eta Codesyntax-eko Gari Araolazak egingo dute berba.

Hilaren 17an, berriz, 16.00etan Android-erako garapen azkarra azalduko du Mikel Olasagastik, ondoren Deustuko Pablo Garraizarrek HTML5 delakoari errebaso

emango dio eta, amaitzeko, Jose Luis Aranguren informatika-injeniarik UAV (Unmanned Aerial Vehicle) izenekoari buruzko oinarriko datuak azalduko ditu. Eta, ohizkoa den moduan, jardunaldiak barixakuan agurtuko



dituzte 16.00etatik aurrera hainbat jokoren inguruan antolatutako lehiaketekin (Guitar Hero, Counter Strike, ProEvolution Soccer, Call of Duty eta Blur). Eta txapelketa girtzen disko jartzaileek jardungo dute. Jardunaldiei buruzko informazio zabalagoa www.iesunibhi.com helbidean aurkituko duzue.

Astlehenean ekingo diote Bakearen Asteari

Uteroko moduan, PROEGA La Salle ikastetxeko Gobernu Kanpoko Erakundeak bakea ardatz izango duen kanpaina antolatu du eta, horren harira, hilaren 14tik 25era bitartean hainbat jardura berezi garatuko dituzte Isasi zein Azitainen. Kanpainan jasotzea lortzen duten dirua Udalak emandako diru-laguntzari batu eta, horri esker, Argentinako Cordoba hiriko Malvinas Argentinas auzoan dagoen

Hector Valdivielso ikastetxearen hezkuntza planean esku hartzeko aukera izan dute GKE-koek. Horrez gain, herrialde azpiratuen egoeraren inguruko sentsibilizazioa ere landuko dute, "ikasleen familien eskuzabaltasunari esker" eta ikastetxe bakoitzak jaialdi nagusiarekin agurtuko du bakeari eskainitako aste hau. Azitainen martxoaren 23an izango da ospakizun nagusia eta Isasin, berriz, hilaren 25ean.



Bestalde, ikastetxe bereko batxilergoko ikasleak bidaiatzen ibili ziren otsaileko amaiera aldean, azterketak amaitu eta berehala: 2. mailakoak Zaragoza eta Andorra bisitatu zituzten eta, Bartzelonara ailegatu baino lehen, Caldea bainuetxean atsedean hartzeko aukera ere izan zuten.




Eta 1. mailako ikasleak Atapuercara joan ziren, kobazuloak bisitatu eta hainbat hominidoren inguruko gauzak bertatik bertara ikasten. Burgos piskat ezagutu ondoren Madrilerako bidea hartu zuten eta, besteak beste, Gran Viako Rialton "40 el musical" ikusteko aprobetxatu zuten bisita.



Hau ez da Brasil,

baiña ez jaku kolorerik falta

Aratoste Martitzenian, Jainagatarrak eta euren eskola-kuak, Astixak antolatutako sardiñaren entierro txikixan parte hartzea animau ziran umiekin batera izan ziran protagonista nagusixak jaixaren azken egunian. Halanda be, aurreko egunetan gurian bizi izandako giruarekin pozik egoteko moduan gagoz, azken urtiotako "animauenak" izan dirala kalian bolo-bolo dabillan komentari xua da-eta. Parte-hartzia beste batzuetan baiño haundixagua izatiaren kulpia, seguruenik, jaixak irauñ daberen bittartian nagusi izan dan eguraldi onak euki dau mailla haundi batian behintzat. Edozelan be, Untzagan karpia ipintzen hasi ziranetik urtetik urtera jaixak gora egitten segitzen diharduela ezin leike ukatu, eurixa eginda be programautako ekitaldirik ez dalako bertan behera laga bihar. Martxoko lehelengo zapatuan ez eben horrenbesteko zortetik izan Kezka dantza taldiak antolatutako koko-dantzetan eta kalejiran parte hartu ebena, Otaola-Kiñarra auzuetako basarri batetik bestera juan-etorrixan ibiltzeko orduan euritik babesteko aterperik ez eben euki eta. Aratosten inguruan antolatutako lehiaketetan parte hartu ebena domekan jaso zittuen sarixak eta tartian egon ziran aurtengo taberna lehiaketa irabazi daberen Xok tabernakuak: herriko hainbat tabernaren muralak eurenian zintzilikatuta, tabernetan erretzia debekatziaren ondorixuak ondo baiño hobeto islatzen jakin dabe dibujantiak! Eta Aratostiak ospa egittiarekin batera, ointxe jaixa eta gehiegikerixak albo batera lagatzeko sasoian sartu gara





Bide luzea egin du Juan Diego aktoreak antzezpen munduan. Hogeita hamar urtetik gorako ibilbidean, hogeitik gora antzezlan, hirurogeitik gora pelikula, telebistako programa eta serie mordoa... ditu eginak eta, sasoi betez egoteaz aparte, lanik ere ez zaio falta, lau proiektutan sartuta baitago aldi berean. Atzo gure artean izan zen Antzerki Jardunaldietako irekieran eta, hori aprobeztatuz, elkarrizketa egin genion aurretik. Nortasun handikoa da, askatasunaren defendatzaile sutua, ahaleginak begiratu gabe eta arriskua ekidin gabe kausa galduen alde borrokatzen dutenen horietakoa. Interprete moduan, Zilarrezko Kontxa, Goya eta beste hainbat sari jasotakoa.

JUAN DIEGO, aktorea:

“Aktore jarduteaz aparte, jendeak dituen gabezien bozgorailua izan behar dugu”



- Eibarren eman beharreko hitzaldiak “Aktorea eta bere konpromisoa” du izenburutzat. Nondik nora enfokatu nahi duzu, zer transmititu nahi duzu?

Aktore moduan bakarrik jardun edo hiritarra zarela ere erakutsi: aukera hori dugu eszenarioetan eta arte eszenikoetan dihardugunok. Nik herritar jardutea erabaki dut. Gizarte honetan jendeak gero eta arazo handiagoak ditu, krisiak harrapatu gaitu eta behar horiei erantzun behar diegu. Bozgorailua izan eta jendeak kontzientzia hartu dezan lagundu. Integroak izan behar dugulakoan nago: barreak bai, baina beste alde ere erakutsi. Joera horrek XVIII. mendean izan zuen abiapuntua, Zolaren “J'accuse” ospetsuarekin, intelektuarekin figura errebindikatzean. Espainian 1927-aren bueltan piztu zen, baina Errepublikaren ondoren desagertzeko. Berpizte berri bat izan zen 1970. hamarkadan.

- Zuen gremioa orokorrean hartuta, gaur egun bide horri eusten diozula esango zenuke? Edo gutxiengoa zarete?

Ez diot batazbestekoari begiratzen. Egun behar da, eta kitto, onartu arren zenbat eta gehiago izan gizartean eragiteko errazagoa izango zaigula. Hainbat lorpen ere izan dugu, 1970. hamarkadaren bueltan eskuratu genuen atsedenen eguna, esaterako. Aktore gazteak gero eta integratuago ikusten ditut mugumendu horretan eta horrek itxaropenaz betetzen nau.

- Antzerkian jardun duzu, baina baita zinean eta telebistan, hiruretan lan mordoa eginez. Non zaude erosoago, non ikusten duzu zure burua hobetoen?

Benetako testua dagoen tokian. Pertsonaia

zurea egin behar duzu, berarekin busti... baina horrek ez zaitu zoratu behar. Aukeratzekotan, antzerkian errege sentitu naiz askotan: sentitu diot ikusi ez naizelako ikusten. Hori abantaila da. Zinean eta telebistan, ostera, zure burua ikusten duzu pantailan eta lotsatze puntua ere izan dezakezu.

- Ohizkoa izaten da antzerki munduan obrak luze interpretatzea. Zure kasuan, baina, “Los hombres de Paco”-n jo duzu luzeen, bost denboraldi bertan...

Egia da. Antzerkian ez naizelako luzaroko antzeztearen aldekoa, gutxi agoantzen baitut. Egunero entregatze horrek asko erretzen nau: lan gogorra da, energia asko transmititzen duena, bai ematerakoan eta baita hartzerakoan. Aberastu egiten zaitu eta gastatu aldi berean. “Los hombres de Paco”-rekin, gainera, gertatu zaidan mirakulurik handiena bizi izan dut: ikaragarria izan zen nola bizi izan genuen, goizeko 06.00etan zelako gogoarekin jaikitzen ginen, gure artean zein harreman bereziak sortu ziren, ikastetxe nagusi bat ematen zuen gureak... Oraindik ere gogoia pizten zait kapitulu berriak grabatzeko.

- Interpretatu dituzun pertsonaietatik, zein nekin geratuko zinateke? Zeinek bete zaitu gehien?

Ezin naiz batekin bereziki geratu, guztietan ahalegindu bainaiz jendeak ere pertsonaia hori bizi dezan; ezin dut onartu nire aurrean jendeak hankak gurutzatu eta albo batera begiratzen ikustea. Ikusleak bizi egin behar du aurrean duena. Aukeran, “El lector por horas” lanean egin nuen paperarekin geratuko nintzateke, akaso.

- Sari gehien eman dizun lanak, dena dela, “Véte de mí” pelikula izan da, orain dela bost urte.

Horkoa ere berezia izan zen-eta! Zuzendaria oso gaztea zen (eta da), nik bera kakaumea zenean altzoan izan nuena. Gozo jokatu zuen nirekin eta nire onena atera. Sari asko jaso banituen ere, nik bezain meritu du Juan Diego Botto beste protagonistak, asko lagundu zidalako.

- Baduzu pertsonaiaren bat interpretatzea gustatuko litzaizukeena?

Amesteari aspaldi laga nion: pertsona arrunta besterik ez naiz. Zeozer etorri behar bada, etorriko da. Hasieran bai: Shakespeare, Calderón, Lope de Vega... euren pertsonaiak izan nahi dituzu. “La vida es sueño” eta paper horiek egin nituen dagoeneko; ez noa ezeren bila. Bizitza bagoi arraroa da eta energia doan moduan dator.

- Kritikak eta publikoak errekonozimendu nahikoa eman dizute?


Baietz esango nuke, onerako zein txarretarako. Goraipatzen nauenik izango den moduan, egongo da hor akabatuta nagoela pentsatzen duenik, iraintzeraino: biek dituzte euren arrazoiak.

- Etorrizun hurbilean, zein lanetan jardungo duzu?

“La lengua madre” Millánen monologoarekin jardungo dugu urtarriletik aurrera. Lehenago “Anochecer en la India” pelikula dugu esku artean, Espainian, Errumanian, Indian eta Pakistanen errodutako dena. Irailean hasiko dut ere “Todo es silencio” Jose Luis Cuerdak filmatuko duen Rivas galiziarren droga trafikoa inguruko nobela.

Ferreiro garaile San Prudentzio squash torneoan

TORNEOKO BIGARREN ZERRENDABURU IZANDA ERE, postu bateko jauzia eman eta Gasteizen irabaztea lortu zuen Alberto Ferreiro Klub Deportiboko ordezkariak. Finalean Lian Kane jokari handiari irabazi zion eibartarrak, set-ik galdu gabe; hori bai, 3-0koa ez zen hain erraza izan, markagailuak erakusten duen moduan (13-11, 12-10 eta 11-8). Guztira 27 jokalarik izan ziren parte hartzen, Euskal Herriko eta Kantabriako



ordezkariak denak. Ferreireokin batera izan ziren Sergio Salgado (7. postuan amaitu zuen) eta Jon Losada, azken hau aurreko fasean jausita.

Waterpoloko Espainiako hautatzailea Orbean izango da domekan

ANTONIO APARICIO MUNDUKO AZPITXAPELDUNA DEN SELEKZIOAREN BIGARREN ENTRENATZAILEA Orbea kiroldegian izango da domekan, 14.30etan, Araban eta Gipuzkoan 1994/95/96an jaiotako jokalarik interesgarrienak teknifikatzeko. Etxeko waterpolo eskolak ordezkaria izango du bertan: Ekhi Sologaitua eibartarra.

Bestalde, Urbat-Urkotronik bere boladarekin jarraitzen

du eta seniorrek Easo gainditu zuten (16-7) Orbea kiroldegian. Partzialak 3-1, 3-3, 4-1 eta 6-2 izan ziren. Opena amaitzeko hiru jardunaldi geratzen direnean, Sestaok puntu biko alde kentzen dizkie Urbat-i eta Waterpolo Navarrari. Hiru partidu horietatik, eibartarrek Iruñean jokatu beharko dituzte bi: lehenengoa asteburu honetan, Iruñaren aurka, eta bestea azken jardunaldian, Waterpolo Navarraren kontra.

Infantil mailako igeriketa txapelketak Irunen

BIKAIN JARDUN ZUTEN URBATEKO ORDEZKARIEK asteburuan Irunen jokatutako Euskadiko txapelketetan. Beste batzuen artean, Ane Lópezek zilarrezko domina eskuratu zuen 200 metro libretan eta 3.a izan zen 100 metrokoan; Xabier Oruesagastik, bestalde, 3.a izan zen 200ekoan eta 4.a 100ekoan. Azken honen gainera, estatu mailako gutxieneko marka eskuratu zuen 400 metroan.





Doitasun handiko mekanizazioan puntakoa den kooperatiba gazte batek honako hauek behar ditu:



CNCdun FRESATZEKO MAKINARAKO BI LANGILE

(Erref. 11/11)

LANPOSTUAREN PROFILA: Fresatzeko makina handiak (zubiak, zutabe mugikorrekotako makinak edo mandrinatzeko makinak) erabiltzen —bai arbastatze-eragiketetan, bai akaberakoetan— esperientzia duten bi pertsona behar dira.

ESKATZEN DA: Goi-mailako heziketa-zikloko trebakuntza, antzeko lanposturen batean eskarmentua izatea, CNC HEIDENHAIN erabiltzen jakitea, euskara menderatzea, ekimena eta taldean lan egiteko gaitasuna eta egiaztapen-tresnak (alexometroak, mikrometroak...) erabiltzen jakitea.

ESKAITZEN DA: Lanpostu finkoan berehala hastea eta esperientziaren araberako ordainak.



GOIMEK

Cooperativa de Promoción Industrial de Gipuzkoa, S.L. (GIPUZKOAN)

20740 Leizor, 48100 Leizor, Araba. Telefono: 945 22 11 11






Gisasolatarrak nagusi eskualdeko ehiza txapelketan

HILAREN 5-EAN TXAKURRAREKIN EGINDAKO EHIZA TXIKIKO ESQUALDEKO TXAPELKETAN, Gisasola aita-semeak izan ziren nagusi. Horrela, Iñigok irabazi zuen senior mailakoa eta Jose Luis

sek beteranoena. Eurekin sailkatu ziren irailean jokatu den eskualderako Jose Antonio Fernández, Valentin Ostiategi eta Juan Manuel Gorosabel, Juan Manuel Isasi beteranoarekin.

Hierros Anetxek igoerako promozioa jokatuko du


AZKEN JARDUNALDIAN KENDU ZIZKION EIBAR HIERROS ANETXEK SAILKAPENEKO 2. POSTUA Zarautzi eta, horrela, igoerako promozioa jokatzeko eskubidea bereganatu. Atsedendian 8-6koa-rekin aldageletara joan eta gero, bigarren zatia eibartarena izan zen guztiz. Hurrengo fasea Crat A Coruña A multzoko liderraren aurka jokatu beharko dute eibartarrek: lehen partidua Unben jokatuko da hilaren 20an, domekan, eta itzulera-koa 27an A Coruña. Kanporaketa hori gaintitzen badute, ei-



bartarrek beste bati egin beharko diote aurre, hori galduta ere "errepeka"n sartzeko aukerarekin. Unbeko partiduen zozketan, honako zenbakiak saritu ziren: 1) 3.646, 2) 3.665 eta 3) 783. Saria jasotzeko, deitu 600 518523 zenbakira.

Deportiboaren batzarra hilaren 18an


KLUB DEPORTIBOAK URTEROKO OHIKO BATZARRA EGINGO DU DATORREN ASTEKO BARIXAKUAN, 20.00etan, honako



gai ordenari jarraituz: aurreko aktaren onarpena, presidentearen txostena, kontuen gorabeherak, bazkideenak, zuzendaritza karguen berritzea eta galdera eta eskariak. Karguen berritzeek mendi, txirrindularitza, eski, dantza taldea, argazkilaritza eta kultura batzordeei eragingo dizkie. Bestalde, jarraian ezohiko batzar nagusia egingo da, 20.45etan hasita, estatutu berriak onartzeko.

Eibarrek Sanse hartuko du bihar 16.00etan

ETB1-EK EIBAR FOBALL TALDEAREN BESTE PARTIDU BAT ESKAINIKO DU bihar arratsaldean, ohikoa denez 16.00etan hasita, oraingoan Real B-ren aurrean. Donostiako taldea sailkapenaren goiko aldean dago, eibartarrendik hamar puntura, eta aurkari gogorra izango da. Manixen mutilek lidergoa berreskuratu dute, Peña Sport taldeari 1-2 irabazi ondoren eta Alavésék domekan Mirandésekin galdu eta gero.




XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX

Xabier Peñagarikano irabazle Udaberri Sarian

BURUNTZAZPI TALDEKO XABIER PEÑAGARIKANOK IRABAZI ZUEN DOMEKAN JOKATUTAKO UDABERRI Sariaren 33. edizioa, Javier Gallastegi Memorialaren 18.a. Bere atzetik sailkatu ziren Victor Etxeberria (Ibarrola) eta Alain Santamaria (Viña Ijalba). Mendiko sailkapena 2. postuan sailkatutako Etxeberriarentzat izan zen, taldekakoan Ibarrola nagusitu zen eta Debabarrenako onena Fabian Castro izan zen.

Hiru txirloko Gipuzkoako txapelketa hasiko da bihar

ELGOIBARKO SAN PEDROKO BOLA-TOKIAK HARTUKO DU BIHAR GIPUZKOAKO 42. hiru txirlo txapelketaren lehenengo jardunaldia. Hamar asteburu iraungo du txapelketa, maiatzaren 28ra arte, Aste Santuko asteburua libratuz. Elgoibarren San Pedron, San Miguelen eta San Roken jokatuko da, Sorluzen Ezozian eta San Andresen, Deban Lasturren, Azkoitian Floreagan, Azpeitian Garmendipen, Eibarren Asola-Berrin eta Elgetako bolatokian jokatuko dira tiraldiak.



Aurretik ere munduko beste marka bi izan arren, Ernesto Ezpeleta Eibarko aizkolariak beste inor ausartu ez den lan bati ekingo dio hilaren 19an Berrizen, goizeko 10.00etatik aurrera. "Jakin barik, gainera, amaituko dudan", berak dioenez. Aditu askok ez dute uste gai izango denik hiru metroko perimetroko pago enborrari amaiera emateko, horretarako esku bakarraz baliatuz. Horrela 2'52koa ere ebaki zuen, baina metro erdiko perimetroaren alde horrek asko zailduko du haren lana, aizkorakada kopurua ere asko igoko baita.

BIHURRI aizkolaria

Munduko hirugarren markaren bila

Erronka bat bestearen atzetik: ez da lasai egoten diren horietakoa eta, oraingoan ere, badu burua non nekatu. Apirilaren 19ra arte, hor gorputz osoa nekatuko baitzaio. Berrizen izango du zita: "Bertatik jaso diat proposamena-eta. Lehen ere han jardun izan diat eta, bai babesleak baita bertako Udala pozik geratu zituanez, toki aproposa dek", dio Ezpeletak. Gutxi gorabeherako prestaketa lanak egingo bazituen ere erronka horri aurre egiteko, "horrelako lanetan ezin dela" ezer ziurtatu dio. Aizkolariak sentsazio onak izan behar ditu, eguraldiak lagundu, baita egurrak ere... gauza asko emaitza ziurtatzeko. "Hala ere, gogo biziz nagok lanari ekiteko. Nire burua ondo ikusten diat, presatuta; baina, unea iritsi arte,

zeinek jakin?". Badu gomen-diorik ere ikustera joango direntzat: "Zaletuei esango niekek ondo gosaldu eta ogitarte-koarekin joateko, gatxa da-eta lana zenbat luzatuko den aurrez jakitea. Doping-aren aurkako kontrola ere pasatu beharko diagu gero".

Sarrera doan izango da, "modu horretan babes gehiago izango diagu-eta". Aizkolari gutxi dihardu esku bakararekin gaur egun, gurean Pedro Egi-guren "Ixkua" ospetsu egin bazen ere modalitate horretan, bikain moldatzen zelako esku bakararekin enborrak artez moztzen. Ernesto Ezpeleta "Bihurri" orain dela lau urte ia hasi zen esku bakararekin moztzen, orduan ere geldirik egoteko sendagilearen gomendioei jarraitu ezinik. "Aizkora-ren kirtena apurtu eta besau-



rreko bost tendoi mozterakoan, hilabete batzuetan geldirik egon behar nintzenez, esku bakararekin hasi nintzen eta, gutxinaka moldatzen nintzela ikusita, jarraitu egin nian".

Otaola 27ko proiektua

Datorren asteko zapatu horretako ekitaldirako, Frantziatik ekarri du egurra Bihurrik. "Sistema Zentraletik; egur polita delakoan gautuk. Ondo ordainduta zegok gainera, zuhaitz guztia erosi behar izan diagu-eta". Pago egurra da, gaur egun era-kustaldi ia denetan erabiltzen dena, pinuarena baztertu egin baita azken aldian. Eguraldia aukeratzeko, "nahiago diat hotz egiten badik, neurrian jakina! Bestela ere, beteko gaituk-eta!". Probari ez dio inolako bel-durrik: "Horretarako, etxean geratuko gintuan. Errespetua, hori bai. Une txarrak izango ditiagu, itxaropena, antsietatea, dena kontrolatu beharra zegok. To-

pera jota, arriskua zegok jarrai ezin duala geratzeko. Eta hala-korik ez diagu behar: amaitzera jo beharra diagu, estutu gabe ahal bada". Dioni Kortina bere betiko laguna izango du aldamenean "beste laguntzaile batekin, seguruenik".

Prestaketa berezirik ez duela egin dio Bihurrik, betikoari jarraitu diola. "Arnasa landu diat, batez ere. Gimnasioa ez diat gustoko eta mendian korrika egitearen aldekoa nauk sasoi-ari eusteko". Bezperan ere, mendi-buelta egingo du, "ondo oxigenatzeko", aizkorei azken ukituak eman, lasai afaldu eta lo egin "ahal bada". 18-20 bat aizkora eramango ditu, luzeena 1'20 metrokoa. "Golpe guztiak bere tokira joan behar dituk, gorputzak ere lagundu behar dik, zuzen, direkzioa emanaz. Mota honetako lan luzeek ez ditak akatsei tarte larregirik eskaintzen". Munduko marka berria du zain. Hirugarrena.

MARKAK

MUNDUKO BESTE MARKA BI

2005ean 5 metroko perimetrokoarekin
3h7'48"ko denboran, 4.797 aizkorakada

2008an 2'52 perimetrokoarekin eta esku bakarraz
22'21"ko denboran, 878 aizkorakada

BESTE LAN BATZUK

4'20 perimetrokoarekin, 2h22'45"ko denboran

3'50 perimetrokoarekin, 50'20"ko denboran

3 eta 4ko perimetrokoak ere ebaki ditu

Itzioko ikasleak nagusi Narruzko Zezen Sarietan

ATZO BANATU ZIZKIETEN NARRUZKO ZEZEN ANTZEZ GIDOI ETA ARTIKULU LEHIAKETAKO SARIAK IRABAZLEEI, Coliseoan. Aurten, sarien 26. edizioan, euskeraz idatzitako lau lan lehiatu dira artikuluei eskainitako atalean eta 30, berriz, gidoei eskainitakoan. Horiek irakurri ondoren, Javier Alday, Asun Gandiaga eta Iñaki Aldayk osatutako epaimahaiak sari hauek banatzea erabaki du: artikuluetan, B saileko lehenengo saria (110 euro) Leire Ordorikak (Itzio BHI) aurkeztutako "Olentzero&Co euskerazko lehen musikala" lanarentzat izan da eta bigarrena (50 euro) ikastetxe bereko Sara Blanco Caroren "Erabakiak" lanarentzat. A eta C sailean ez da saririk eman; gidoietan, A saileko lehenengoa (150 euro) Sarai Korta Errastiren "Beti hoberena izan zen bihotza" lanak eraman du eta akzesita (90 euro) eman diote Markel Sanz Calle-ren "Hilketa" lanari. B sailean saririk ez ematea erabaki dute. Irabazle biak Itzio BHI-ko ikasleak dira.

Gaztelera lanetan parte-hartzea handiagoa izan da (31 artikulua eta 55 gidoi) eta M^a Jose Guilabert, Ana Lete, Alberto Echaluce, Carmen Etxeberria eta Rafael Zubiak osatutako epaimahaiak saria jasotzeko aukeratutakoak hauek izan dira: artikuluetan, 13 urtera arteko dagokien A mailan Amaia Alberdi Luengoren "Que empice la función" (Itzio) lanak jaso du lehenengo saria (90 euro) eta bigarrena ikastetxe bereko Ane Juárez Simónen "El teatro"-k (40 euro); B mailan (14-16 urte) ez da saririk banatu eta gauza bera gertatu da C mailan (17-25 urte). Gauzak horrela eta epaimahaiko kideek lehiaketara aurkeztutako lanen artean bakarrizketa edo monologo asko zegoela ikusita, aurreikusita ez zegoen modalitate horri lotutako sari bi emateko erabaki hartu du: Itzioko Mónica Sánchez Fer-



Azken edizioko irabazleak, jasotako sariekin / EKHI BELAR

nández-en "La okupa y yo" monologoak lehenengoa eskuratu du (120 euro) eta ikastetxe bereko Sandra Sánchez Fernández-ek bigarrena (60 euro), "Las máquinas" lanarekin.

Gidoietan, A mailako lehenengo saria (150 euro) La Salle Azitain ikastetxeko Eva Perosanz Moral-ek idatzitako "Romeo y Julieta XXI" lanak eraman du eta Itzioko Ander Barruetabeñak akzesita jasoko du (90 euro), "Ase-sinato bajo 0" lanarekin. 16 eta 25 urte bitarteko artean ez da sariturik egon. Bestalde, eta irabazle zerrendarekin amaitzeko, ikastetxeei eskainitako sari berezia Itzio ikastetxeak eskuratu du.



Joseba Irazoki Karrikan

JOSEBA IRAZOKIK EMANALDIA ESKAINIKO DU DOMEKAN, KARRIKA TABERNAN, 19.00etatik aurrera. Askorentzat oraindik ezezaguna izango den musikariak azken aldi honetan Atom Rhumba bizkaitar rockeroekin diharduelako izango da ezagunagoa beste batzuek. Hala ere, beste hainbatekin jardundakoa ere bada: Petti-ren banda, Maixa ta Ixiar, Rafa Rueda, Triki ta Ke, Xabier Montoia eta beste batzuk dira zerrendan agertzen diren batzuk. Baina bakarkako bere proiektuak (Joseba Irazoki izenpean edo Do gaitzizenpean) zein kolektiboak (On Benito, milaka kolaborazio eta inprobisazio) asko landu dituen gitarrajolea da asteburuan bisitan datorkiguna.



Auteren kontzerturako sarrerak

LUIS EDUARDO AUTEK KONTZERTUA EMANGO DU MARTXOAREN 18-AN, 21.30etatik aurrera Astelena frontoian. Jai Productions enpresaren eskutik antolatutako kontzertuan iaz grabatutako "Intemperie" diskoa aurkeztuko du Autek. Kontzerturako sarrerak aldeztu aurretik eros daitezke (20 eurotan) Eibarren Portalea, Birjiñape, Trinkete, Terraza, Arno eta Caserio tabernetan eta Ayerbe liburudendan, Elgoibarren Lanbroa tabernan, Ermuan Xagua tabernan eta Durangon Horse tabernan. Egunean bertan 25 eurotan salduko dituzte txartelak, frontoiko lehiatilan. Bestalde, antolatzailleek euren web orrian (<http://jaiproducts.net/>) bertan sarreraren salmentarako atala daukate, komisio barik sarrerak internet bidez saltzeko.

EUSKARAREN

OSAKIDETZAK ERDALDUNAK JARRI DITU EUSKARA DERRIGORRA DEN 92 POSTUTAN.

Euskaraz jakitea derrigorrezkoa den 92 postuetan euskaraz ez dakiten langileak kontratatu ditu Osakidetza azken urte eta erdian. Hizkuntz eskaeren urraketa gehienak administrazio lanpostuetan gertatu dira, eta ez erizain eta sendagileenetan. Esanguratsuak izan dira Euskara Planarentzat lehentasun gorena dutenetan egindako urraketak: herritarrak artatzeko zerbitzuetako lanpostuetan, osasun etxeetako harreratakoetan, telefono bidezko informazio guneetan... Osakidetzan euskararen erabilera normalizatzeko 2003ko dekretuak agintzen du hainbat lanpostu betetzeko nahitaezkoa dela euskaraz jakitea frogatuta edukitzea: lanpostuen %16an eskatzen dute hori. Sindikatuek behin baino gehiagotan salatu dute dekretu hori urratu egiten dela. Urraketa hori lehengotik dator; izan ere, aurreko legegintzaldi osoan, 80 kontrataziotan ez zuten debekua bete.

TXOKOA

“Mississippi”, Markos Untzetaren lan berria

GAZTELUPEKO HOTSAK-EN ESKUTIK IKUSIKO DU ARGIA APIRILEAN “MISSISSIPPI” Markos Untzeta eibartarraren hirugarren diskoak. CD berria “Amerikako ibaian zehar Euskal Herritik egindako ibilbide musikala” dela azaldu dute, “euskaraz, bluesetik hasi eta kantu mota honek izandako bilakaeran ezagutu dituen moldeak erabilia”. Ahotsak, gitarra elektrikoa, akustikoa eta armonika Markos Untzetarenak dira eta grabazioan betiko lagunak izan ditu aldamenen: Daniel Merino (gitarra elektrikoa), Pit Idoyaga (gitarra elektrikoa), Carlos Velasco (gitarra elektrikoa), Txomin Guzman (baxu elektrikoa eta gitarra akustikoa), Juan Uribe (bateria), Edu Landeta (bateria), Diego Lasheras (Hammond B3), Mikel Fernandez (pianoa eta glockenspiel), Manu Iturregi (akordeoia), Juan Gumuzio (banjoa), Asier Ituarte (tronboia), Bihotz Gorospe (ahotsak) eta Saul Santolaria (koroak, pandereta eta grabazioaren arduraduna).



Eibartarraren hirugarren dizkoaren azala.

Lorea Citores-en argazkiari saria



Blas de Otero saria irabazi duen argazkia.


LOREA CITORES 17 URTEKO EIBARTARRAK IRABAZI DU BLAS DE OTERO FUNDAZIOAK eta Bilboko Udaleko Kultura eta Hezkuntza Sailak idazle bilbotarraren poesia gazteen artean ezagutaraztea helburu duen "Imágenes para unos versos" bigarren argazki lehiaketaren saria. Epaimahaia Jose Fernandez de la Sota poetak (2010eko Euskadi Literatur Saria) eta Richard Bilbao argazkilaria osatu dute, beste aditu batzuren artean, eta lehen saria argazkilaria zaletua den Eibarko gazte horri ematea erabaki dute. Lorea Citoresek "En el principio" poemari inspiratutako argazkia aurkeztu zuen.

Martxorako argazki erakusketak

HILEROKO MARTXARI JARRAITUTA, KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA BATZORDEKOEK argazki erakusketak ipini dituzte martxan herriko ohiko tabernetan: El Ambigü-n Jose Antonio Palacios batzordeko kidearen “Kaian”



izenburukoa ikus daiteke eta Portalea tabernan, berri, Eduardo Magunazelaiaren argazkiak daude. Erakusketa biak martxoaren 31ra arte egongo dira martxan. Eta Deporren martitzenaz geroztik Llorenç Pie-ren lanekin osatutakoa bisitatzeko aukera dago. Azken hau apirilaren 8ra arte egongo da ikusgai.



laburrak

HITANO IKASTAROA


Maiatzerako hitano ikastaroa antolatu dute udalak, Badihardugu Euskara Elkartek eta Udal Euskaltegiak, hitanoaren erabilera sustatzeko asmoz. Horretarako, hitanoaren gaineko oinarriak, alderdi teorikoa eta praktikoa landuko dira ikastaroan eta, antolatzaileek azaldutakoari jarraituta, batez ere Eibarko hitanoa irakatsiko da, baina ingurko herrietakoak eta batua ere kontuan hartuko dira. Oraindik ez dituzte ikastaroaren inguruko xehetasunak zehaztu, baina interesa dutenei adi egoteko eskatzen diete, izena emateko epea eta bestelakoak aurrerago emango baitituzte ezagutzera.

MERCEDES CANTERO UNTZAGAN

Gaur arratsaldean, 19.30etan inauguratuko dute Untzagako jubilatutako etxean hilaren 26ra arte ikusgai egongo den Mercedes Canteroren olio-margoen erakusketa. Ordutegi honetan egongo da zabalik: astelehenetik barixakura bitartean 19.15etatik 21.15etara eta zapatu eta domeketan 12.00etatik 14.00etara eta 19.15etatik 21.15etara.

BEHEKO TOKIKOAK SAGARDOTEGIRA

Hilaren 18rako Laka-Erdi sagardotegira irteera antolatu dute Beheko Tokia jubilatutako etxeok. Egunerako plana eguraldiaren arabera osatuko dutela aurreratu dute, eta irteeraren prezioa 15 eurokoa izango da bazkideentzat eta 25 eurokoa gainontzekoentzat.



34. Antzerki Jardunaldiak

“Tengamos el sexo en paz”



Eme2 Produccións

ASTELEHENA
14
20.30
Unibertsitatean

EGILEAK:
Franca Rame, Darío Fo, Jacopo Fo
ZUZENDARIA:
Alvaro Lavín
ANTZEZLEA:
Mercedes Castro
IRAUPENA: 60 minutu

Komedia bizia da, haragi kontuetan portaera ohizkoenak kontatzen dituena. Topiko eta tabuak hausteko bilgune umoretsu guztiz aproposa da eta baita gazte eta helduak hausnarketara bultzatzeko ere. Mundu osoan antzezle ospetsuenak taularatu dute testu interesgarri hau.

“Nadie lo quiere creer”




La Zaranda

EGUAZTENA
16
19.00/22.00
Coliseoan

EGILEA:
Juan Carlos Rubio
ZUZENDARIA:
Juan Carlos Rubio
ANTZEZLEKA:
M^a Luisa Merlo, Miriam Díaz-Aroca, Jorge Roelas
IRAUPENA: 85 minutu

Nahiz eta gaixotasun larria izan, buru argia eta gorputz arina duen emakume zaharra da lanaren protagonista. Emakume honek salgai jartzen du bere etxebizitza baldintza oso onetan eta eroslearentzat izango dena bera “faltatzean”. Hunkitu egiten gaituen komedia, gizakioi buruzko hausnarketa sakonarekin.



“100 m²”

MARTITZENA
15
20.30
Coliseoan

EGILEA:
Eusebio Calonge
ZUZENDARIA:
Paco de la Zaranda
ANTZEZLEAK:
Gaspar Campuzano,
Fco. Sánchez
IRAUPENA: 90 minutu

Kolpe zehatz eta eraginkorrez aletzen den sainete espektralak barre algarara eramango gaitu, baita guztiak hunkitu eta harriztera. Taldearen ekoizpen zoragarrienetako da testuaren kalitateagatik, nortasun eta jenialtasunez betetako interpretazioarengatik eta gune eszeniko paregabeagatik.

Txalo eta Vértigo

“El retablo de las maravillas”

BARIXAKUA
18
20.30
Unibertsitatean



Arrojoscénico

ZUZENDARIA: Victor Mendoza
ANTZEZLEAK: Sara Menaceur, Erdem Tsydypov, Maribel Palos, Carmen Oruña, Amanda Padilla, Samuel G. Arroyo
IRAUPENA: 60 minutu

Cervantesen zerbait badu ere, ez da antzerki klasikoa. Alderantziz, Bloc peto-petoa da, “eroa”, absurdoarekin jantzen duena antzez proposamen hau. 70. hamarkadako film batean oinarritutako testua jartzen da eszenan, egungo telebista munduak bizi duen eromen beldurgarria aztertu eta astintzeko.

ANTZERKIA ZINEMAN

Asier Errasti Laburmetraiak




EGUENA
17
17.30/21.00
Unibertsitatean

11 istorio labur. Gela batean edo kalean, bi edo hiru aktore, zuzendaria eta gidoi interesgarri bat. Batzuk baliabide urriekin, besteak estudio handi eta behar diren teknikari guztiekin. Komedia zein drama, lehenengotik gehiago azken edizioan.

laztanak emoten...


Zure senide edo lagunena bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguazten aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, IKER, bixar hiru urte beteko dozuzelako. Gurasuen eta aitxitxa eta amamaren partez.




Zorionak, BEÑAT, astelehenian hiru urte egin zenduaz-en-eta. Muxu pillua famelixaren partez.



Zorionak, ANDER, astelehenian lau urte egingo dozuzelako. Eibarko famelixaren partez.




Zorionak, PAULA, zure zazpigarren urtebetetzian. Muxuak famelixa guztiaren partez.




Zorionak, JOKIN, bixar zazpi urte beteko dozuz-eta. Etxekuen partez.




Zorionak, LOREA, gure printzesa, lau urte egin dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MADDI, hillaren 8xan zazpi urte bete zittuan-eta gure printzesak. Famelixa guztiaren partez.




Zorionak, IBAI, gaur urte bi betetzen dozuz-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, IRATI, domekan lau urte egingo dozuzelako. Famelixaren partez.




Zorionak, LUR printzesa, gaur urte bi betetzen dozuzelako. Famelixaren partez.



Zorionak, LEIRE, zure 6. urtebetetzian. Ondo pasa eguna eta muxu haundi bat zure laguntxo eta famelixaren partez.



Zorionak, TXARO Olañeta, domekan urtiak beteko dozuz-eta. Ondo pasa etxekuen partez.




Zorionak, MIKEL Camina Elkoro, astelehenian zazpi urte beteko dozuz-eta. Famelixaren partez.

zinea Coliseoan



"En tiempo de brujas"
Zuzendaria: **Dominic Sana**
Aktoreak: **Nicolas Cage, Ron Perlman, Stephen Graham, Ulrich Thomsen**

11n: 22.30
12an: 17.00/19.45/22.30
13an: 17.00/19.30
14an: 20.30



"The fighter"
Zuzendaria: **David O. Russell**
Aktoreak: **Mark Wahlberg, Christian Bale, Amy Adams, Melissa Leo**

11n: 22.30
12an: 17.00/19.45/22.30
13an: 17.00/19.30
14an: 20.30




"Torrente IV"
Zuzendaria: **Santiago Segura**
Aktoreak: **Santiago Segura, Mario Casas, Yon González, Belen Esteban**

11n: 22.30
12an: 19.45/22.30
13an: 19.30
14an: 20.30

12an eta 13an: 17.00



Zorionak, OLATZ (domekan) eta JUNE (gaur), zazpi urte egitten dozuez-eta. Etxekuen partez



HILDAKOAK

- Jose Antonio Romero Solorzano. 37 urte. 2011-III-2.
- M^a Paz Arrate Errasti. 95 urte. 2011-III-2.
- Paulino Larrañaga Longarte. 92 urte. 2011-III-3.
- Vicente Calvo Gracia. 79 urte. 2011-III-3.
- Ana González Gómez. 50 urte. 2011-III-4.
- Enrique García Fernández. 85 urte. 2011-III-4.
- Jesusa García Kalparsoro. 84 urte. 2011-III-6.
- Eloisa Etxaburu Maguregi. 90 urte. 2011-III-6.
- Estefania Zabala Bildosola. 87 urte. 2011-III-8.
- Luis Molina Cañaveras. 75 urte. 2011-III-9.

JAIOTAKOAK

- Danel Alfaye Sanz. 2011-II-20.
- Aitor Prieto Quindós. 2011-III-4.

horoskopoa

ARIES

Aratosteetan ondo baino hobeto pasa duzu, ezta? Udaberria ere momentu onez josita dator zuretzat; ez galdu aukera eta aprobetxatu.

TAURUS

Ligatu egin zenuen, ezta? Asteburu honetan berriz ere ikusiko duzu pertsona hori eta hasitakoari jarraia emateko aukera izango duzue.

GEMINI

Ondo dago parranda egitea, baina orain apur bat lasaia ibiltzea gomendatzen dizut. Ikasketei heldu adarretatik eta gehiago saiatu.

CANCER

Espero ez duzun lagun baten bisita izango duzu; dagoeneko ahaztuta zeneukala uste zenuen, baina ez da horrela izango. Konturatuko zara!

LEO

Katarroa kendu ezinda zabilazala? Normala, ipurdia bistan ibilita! Aste honetan oso eguraldi ona egin badu ere, oraindik neguan gaude-eta!

VIRGO

Zer gertatzen zaizu? Zergatik zaude hain triste? Gora begiratu, arnasa sakon hartu eta aurrera! Dena pasatuko da, zurea urdin jartzearaino.

LIBRA

Aste honetan kuadrilako batek zure beharra izango du. Arazo larria ez bada ere, berarentzat garrantzitsua izango da zuk eskainitako laguntza.

SCORPIUS

Lehenengo izatea, irabaztea, besteak baino gehiago izatea... guzti hori gustatzen zaizu eta zeure buruari larregi eskatzen diozu. Kontuz!

SAGITTARIUS

Apur bat atsedean hartzea behar duzu. Azken aldiari gelditu barik ibili zara eta zure gorputzak igarri egiten du. Lasaia hartu dena, ahal duzu-eta.

CAPRICORNIUS

Zintzoa zara eta dena sinesten duzu, baina kontuz, berandu baino lehen! Inguruan duzun baten bat gezurretan dabil eta zu ez zara konturatzen.

AQUARIUS

Zure bizitzan aldaketa sakona dator. Ez da ez onerako ez txarrerako izango: beste barik, beste era batera antolatuta beharko zara. Hori baino ez!

PISCIS

Kontuz! Sarritan handiki jokatzeko duzu eta lagunekin zakarra izaten zara; dagoeneko, nazkatuta dituzu. Aldatu jarrera berandu baino lehen.

Barixakua 11**UNI ENCOUNTER**

19.00.- Uni Encounter VII. Aurkezpena eta UniSkills Sariak ematea.

19.20.- "Software librea Euskadin", Daniel Armendarizekin. Portalean

AEK TXOTX

20.00.- Sagardotegira joateko autobusaren irteera, Ego-Gainetik.

Zapatua 12**KONTZERTUA**

12.30.- Cielito Musika Bandaren pasodoble kontzertua. Coliseoan.

ERROTA GAZTELEKUA

17.00.- 7 karta mahai jolas lehiaketa. Errota Gaztelekuan.

KALETAN KANTUZ

19.30.- Kaleetan Kantuz-ekoen irteera, Untzagatik abiatuta.

Domeka 13**KALEJIRA**

11.00.- Usartza Txistulari Bandaren kalejira.

AURKEZPENA

12.00.- Bake bidean aterabide demokratikoaren akordioa (Gernikako akordioa) Eibarren aurkezteko ekitaldia. Portalean (areto nagusian).

BATZARRA

12.00.- Kantabriako Etxekoen urteko batzarra (Jardiñeta, 9).

PILOTA

17.00.- Retegi Bi / Zabaleta vs Aritz Lasa / Arruti. Xala / Barriola vs Bengoetxea VI.a / Albisu. Rico IV.a / Argote vs Gorka / Merino.

KONTZERTUA

19.00.- Joseba Irazoki. Karkira tabernan.

Astelehena 14**ANTZERKI JARDUNALDIAK**

20.30.- "Tengamos el sexo en paz" (Eme2 Produccións). Hezkuntza Esparruan.

Martitzena 15**IKASTEN**

10.00.- "Pintura entre guerras (el expresionismo alemán)" hitzaldia, Ricardo Aldamaren eskutik. Armeria Eskolan.

UNI ENCOUNTER

17.00.- "La alternativa ágil" (Jorge Uriarte, Gailen).
18.30.- "BigData" (Svet Ivanchev, eFaber). Uni Eibar-Ermuan (Ongarai auzoan, Ermuan).

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20.30.- "Nadie lo quiere creer" (La Zaranda). Coliseoan.

Eguaztena 16**IKASTEN**

11.00.- Kafe-tertulia: "Política y diplomacia. Principios morales o hipocresía". Deportiboan.

UNI ENCOUNTER

12.00.- "Emprendizaje con software libre y modelos de negocio" (Iker Sagasti, Irontec).

13.15.- "Akziora bideratutako web analitika" (Gari Araolaza, Codesyntax). Uni Eibar-Ermuan (Ongarai auzoan).

SOLASALDIA

19.00.- Lan munduan emakumeen egoera aztertzeke kafe-tertulia. Portalean (2. pisuan).
20.30.- Berdinsareak saritutako dantza taldearen emanaldia. Portalean (areto nagusian).

ANTZERKI JARDUNALDIAK

19.00 eta 22.00.- "100m2" (Txalo-Vértigo). Coliseoan.

Eguena 17**IKASTEN**

10.00.- "La II. República española en su 80 aniversario" hitzaldia, Jesus Gutierrez Arosaren eskutik. Armeria Eskolan.

UNI ENCOUNTER

16.00.- "Garapen azkarra Android-erako" Mikel Olasagasti).

17.15.- "Un breve repaso a HTML5" (Pablo Garaizar, DeutoTech).

18.45.- "Introducción a un uav (Unmanned Aerial Vehicle) accesible" (Jose Luis Aranguren). Uni Eibar-Ermuan (Ongarai auzoan, Ermuan).


ANTZERKIA ZINEAN

17.30 eta 21.00.-

XI. Asier Errasti ikus-entzunezko jaialdiko laburmetraien proiektzioa. Sarrera doan. Hezkuntza Esparruan.

BATZARRA

19.00.- ...eta kitto! Euskara Elkarteko bazkideen urteko batzarra. Elkartearen egoitzan (Urkizu, 11 solairuartea).



erakusketak

- Martxoaren 13ra arte
IZASKUN ALVAREZ-GAINZAren "Graphique et couleur" erakusketa. *Portalean.*
- ROSA M^a VALBUENA**ren margo erakusketa. *Portalean.*
- Martxoaren 26ra arte
MERCEDES CANTEROren olio-margoen erakusketa. *Untzagako Jubilatut Etxean.*
- Martxoaren 13ra arte
J.A. PALACIOSen "Kaian" argazki erakusketa. *El Ambigú tabernan.*
- EDUARDO MAGUNACELAYA**ren argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*
- "2010, URTE BAT IRUDIETAN"** Ekinklik kolektiboaren argazki erakusketa. *Karrika tabernan.*
- Apirilaren 8ra arte
LLORENÇ PIÉren argazki erakusketa. *Deporren.*

lehiaketak

- **XVII. Ipurterre lehiaketa (LH eta DBH)**
Informazioa eta lanak entregatzea: *Martxoak 25era arte, ...eta kitto! Euskara Elkarte*an (Urkizu, 11).
- **XIV. Eguen Zuri lehiaketa.**
Aratosteekin lotutako argazki-lehiaketa. Lanak entregatzea eta informazioa: *Apirilaren 5era arte*, arrate.kultu@eibar.org edo 943202299 zenbakia. Klub Deportiboan (T. Etxebarria, 16-1), bulegoetan edo tabernan.

SUDOKUA

2	3	9				8		6
		5	6		2			
		1						
	5				9		2	
1			2		6			5
	8		7				1	
						5		
			9		1	7		
5		8				3	9	1

farmaziak

- 11, barixakua**
EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)
- 12, zapatua**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiurre, 9)
- 13, domeka**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- 14, astelehena**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- 15, martitzena**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- 16, eguaztena**
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
- 17, eguena**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
- 18, barixakua**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

ikastaroak

- **"Lapiko, kantuz kulunkatzen".**
Noiz: *Martxoaren 19an eta 26an*, 10.00etatik 12.00etara Portalean (Haur liburutegian). Informazioa eta izen-ematea: *Martxoaren 13ra arte*. Portalean, Udal Liburutegian (5 euro).
- **Antzerki ikastaroa: "Máscara neutra".**
Noiz eta non: *Martxoak 19 eta 20*, Portalean. Informazioa eta izen-ematea: zurumurruka@gmail.com helbidean edo 678494271 (martxoak 15era arte).
- **Oinarrizko informatika jubilatuentzat.**
Noiz eta non: *Lehen urratsak* (hilaren 14tan hasita, 6 astelehenetan, goizez; praktikak 6 martitzenetan, goizez). Untzagako jubilatut etxean. Izen-ematea: 943701921 telefonoan edo ciberaulaib@ yahoo.es helbidera idatzita.
- **UEUko udaberriko ikastaroak.**
Informazioa eta izen-ematea: www.ueu.org helbidean.

telefono jakingarriak

- SOS deiak112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas902 12 34 56
- DYA Larrialdia.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

- EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DO-NOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.
- EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.
- EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
- EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Laneguna: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.
- EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.
- EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.
- EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.
- tren ordutegiak**
- EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.
- EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Etxebizitza salgai Eibarko erdialdean. 126 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta trasteroa. Guztiz berriatua. Argitsua. Tel. 626-203838.

– Errekatxun pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. Tel. 636-930962 eta 649-091192.

– Estrenatzeko pisua salgai Amañan. 68'5 m². Logela bi, egongela, sukaldea eta komun bi. Iggogailuarekin. Argitsua. Bizitzera sartzeko moduan. Prezio interesgarria. Tel. 687-122826 eta 943-901908.

– Pisua salgai Amañan. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara. Oso argitsua. Bizitzera sartzeko moduan, altzari berrieekin. Tel. 620-917234.

– Duplexa salgai Eibarko erdialdean (Jata). 80 m². Logela eta komun bina. Estrenatzeko eta kapritxora jantzita. Iggogailua ateraino. Bizitzera sartzeko moduan. Garaje bat edo bi, aukeran. 280.000 euro. Aukera ezinhobea. Tel. 608-171719.

1.2. Errentan

– Eibarren edo inguruan pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 693-950032.

– Logela alokagai Eibarren. Tel. 645-538674.

– Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 669-238113.

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren (2-3 logelakoa). Tel. 651-733446.

3. Lokalak

3.2. Errentan

– Lokala alokagai Amañan. 180 m². Argitsua eta ibilgailuarentzat sarrera onarekin. Tel. 605-771570.

– Garajea alokagai San Andres pasealekuan. 7 m². Trasteroarekin. Tel. 943-120308.

– Garajea alokagai Errebal kalean, Bolintxoren ondoan. Zabalik, trasteroarekin (13 m² + 6 m²). Tel. 687-800230.

– Estetika negozioa traspasatzen da. Lanean hasteko moduan. Tel. 657-793584.

– Lokala alokagai Eibarko erdialdean. 70 m². Komuna eta barrarekin. 18 urtetik gorako gazteentzat modukoa. Tel. 679-425467.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

1.2. Errentan

1.3. Konpartitzeko

1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

2.1. Salgai

3. LOKALAK

3.1. Salgai

3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Esperientzia. Tel. 690-906085.

– Neska eskaintzen da interna nagusiak zaintzeko. Tel. 646-977562.

– Mutila eskaintzen da peoi edo kamarero jarduteko, nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 677-155611.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 646-821678.

– Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 687-114707.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Arratsalde eta asteburuetan. Tel. 676-035738.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 680-969415.

– Emakumea eskaintzen da arratsaldetan eta asteburuetan edozein lan egiteko. Tel. 636-383471.

– Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 634-007292.

– Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 686-802342.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Edozein ordutegitan. Esperientzia. Tel. 678-972690 eta 943-530795.

– Neska arduratsua eskaintzen da asteburuetan eta astegun arratsaldetan lan egiteko. Esperientzia. Tel. 681-322442.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 616-690415.

– Gizona eskaintzen da tabernan lan egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 676-133516.

– Mutila eskaintzen da nagusiak eta baserriak zaintzeko. Tel. 630-031218.

4. LANA

4.1. Lan bila

4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

6.1. Salgai

6.2. Eman

6.3. Galdu/Aurkitu

6.4. Bestelakoak

– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 679-912841.

– Neska eskaintzen da arratsaldetan eta asteburuetan nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 676-035738.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 690-906085.

– Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak edo umeak zaintzeko eta tabernan lan egiteko. Tel. 618-052967.

– Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak edo umeak zaintzeko eta tabernan lan egiteko. Tel. 696-246962.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 634-005760.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 680-326355.

– Emakume euskalduna eskaintzen da garbiketarako egiteko. Esperientzia helduari dendaria moduan. Tel. 690-113659.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Interna edo orduka. Tel. 646-506777.

– Neska eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko. Tel. 608-820954.

– Neska eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Tel. 699-813826.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, eraikuntzan jarduteko etabar. Tel. 620-853295.

– Neska eskaintzen da gauetz nagusiak zaintzeko. Tel. 656-493864.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, sukaldari jarduteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 608-406751.

– Neska eskaintzen da nagusiak (etxean edo ospitalean) edo umeak zaintzeko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 638-249775.

– Neska eskaintzen da nagusiak (etxean edo ospitalean) edo umeak zaintzeko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 688-884746.

– Neska eskaintzen da garbiketa lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Tel. 638-296383.

– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko: tabernak, bulegoak, taillerak... Tel. 603-800159 eta 617-633207.

4.2. Eskaintzak

– Neska behar da asteburuetan jantze bateko sukaldean lan egiteko. Tel. 943-121262.

– Lagun bat behar da zapatu goizetan ileapaindegian makillajeak egiteko. Tel. 943-254512.

– Ilea zaintzaile behar da. Esperientziarekin. Tel. 665-708825.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Filologia Hispánican lizentziatuak Lengoia maila guztiak ematen ditu. Tel. 653-015628.

– Alemanierazko klaseak ematen ditut. Haur, gazte eta helduentzat. Tel. 647-275374.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Egurrezko markodun ispilua (1'60x0'60), lkeako koadroak (lorak), latoizko heldulekuak eta flexo-argia (1'50) salgai. Merke-merke. Tel. 943-120308.

– Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosten ditut. Tel. 943-572057.

– Erremolke salgai (300 kg-rako). Egoera onean eta merkea. Tel. 639-933281.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Eraztuna topatu da Julian Etxeberria kalean. Inskripzio-datarekin. Tel. 943-702297.

gte.

GESTIÓN TÉCNICA Y EJECUCIÓN DE OBRAS, S.A.



edificio **aldatze**²



8 etxebizitza

63 garaje

17 trastero

610 718 244 / 943 700 150

Aukera ezinhobea:

Garajeak Eibar erdian



MEDEKOTASUNAREN LEGEAK GIPUZKOAN IZANGO DUEN ERAGINA. INFORMAZIOA

Dagoeneko 54.000 pertsona baino gehiago daude Gipuzkoan baloratzuta, zer mendekotasun gradu duten zehazteko.

Zer den baloratzaa? Azterketa bat egitea. Prestazioa eskatzen duten pertsona guztiak egiten zaie, zer mendekotasun maila duten zehazteko. Balorazioa egin gabe ez dago prestaziorik jasotzenik.

Eskaera Urtalen Gizarte Zerbitzuetan egin behar da.



Euzko Legebiltzarraren
Euzko Foruak

Departamentuak
Gizarte Zerbitzuak

Gipuzkoa
zure ondoan

TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

Materia arriskutsuak / C.A.P.

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko
nazioarteko agentzia **ziurtagiriak**
lortzeko ikastaroak




T. Etxebarria, 7

Tel. 943 70 23 84

Tel. 943 70 23 78



ZERBITZUA



ADMINISTRAZIOA



BILERAK



GESTIOA

EUKI

T. Etxebarria, 1 - behea Tel. 943 20 42 99

KOMUNITATEAK